BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4666

EBAZPENA, 2012ko Irailaren 11koa, Kiroletako zuzendariarena, Euskadiko Futbol Federakundearen estatutuetan egindako aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

Euskadiko Futbol Federakundea EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu zen 1988ko abenduaren 12an, 156. zenbakiarekin. Orain Federazioaren estatutuak berriro erredaktatu dira.

Euskadiko Futbol Federakundeak 2012ko ekainaren 28an egindako Ezohizko Batzar Orokorrean bere estatutuak onartzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Euskadiko Futbol Federakundearen estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eta bere eranskina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kiroletako zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 11.

Kiroletako zuzendaria,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.

I. ERANSKINA

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESTATUTUAK

I. TIULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Euskadiko Futbol Federakundea.

Euskadiko Futbol Federakundea nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena duen irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, berezko eginkizunez gain, izaera administratiboko zeregin publikoak betetzen dituena. Federakundeak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Federakundeak biltzen ditu lankidetza erregimenean; eta horien bidez, kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak edo kirol-elkarteak eta beste talde batzuk biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, futbol modalitatea praktikatu, sustatu eta antolatzeko.

2. artikulua.– Antolamendu aplikagarria.

Honako hauek arautzen dute Euskadiko Futbol Federakundea: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak; Euskadiko kirol federakundeen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak; aipatu legeari dagozkion gainerako garapen-xedapenek; estatutu hauek eta erregelamendu bereziek; eta bere organoek baliozkotasunez hartutako erabakiek.

3. artikulua.– Egoitza soziala.

Euskadiko Futbol Federakundearen egoitza Bilbon egongo da, Julián Gaiarre kaleko 48an, behean.

4. artikulua.– Eskumenak.

Euskadiko Futbol Federakundeak sustatu, kalifikatu, baimendu, zuzendu eta antolatu egiten ditu futbol kirol-modalitatearen EAEko jarduera eta lehiaketa ofizialak, bai eta hondartza-futbolekoak eta areto-futbolekoak ere.

5. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Federakundeak, bere helburuak betetzeko, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuan kirol modalitatea ordezkatzea, eta, hala dagokionean, federakundea beste erakunde batzuei atxikitzeko araubidea zehaztea.
b) Federakundea osatzen duten lurralde-federazioen jarduera koordinatzea.
c) EAEn lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea bere kirol-modalitateko diziplina guztietan.
d) Parte hartzeko eta lehiatzeko arau propioak ezartzea; betiere bere eremuaz gaindiko lurraldeko federazioek ezarritako arauak aintzat hartuz, hala dagokionean.
e) Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan Federakundeko estamentu guztien partaidetza antolatzea.

f) Bere modalitateko federakunde-lizentziak ematea.
g) Bere jardunean sortutako kirol gatazken berri izan eta ebaztea, eta Federakundea osatzen duten lurralde-federazioen artean sortzen diren auzien berri izan eta ebaztea ere bai.
h) Federakundea osatzen duten entitate eta federazio guztiek bete eta aplikatu beharko dituzten diziplina-arau eta –prozedurak erredaktatu eta arautzea, indarreko legeak kontuan izanik.
i) Kirolean debekatuta dauden substantzia, talde farmakologiko eta arauz kanpoko metodoen erabilera prebenitu, kontrolatu eta zigortzen Administrazioarekin elkarlanean aritzea, horretarako zehaztuko den araudiari jarraikiz.
j) Dagokion kirol modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzea, helburu horri begira lurralde federazioekin batera ezarriko den araudiaren arabera.
k) Baliabide ekonomiko propioen destinoa eta izendapena zehaztea; Federakundearen jarduerarako beste erakunde batzuek transferitzen dizkion baliabideak kudeatzea; eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla kontrolatzea.
l) Lurralde federazioei eta, hala behar bada, klubei eta kirol elkarteei esleitutako diru-laguntzak izendatu eta horien erabilera kontrolatzea.
m) EAEko administrazioekin elkarlanean aritzea kirola sustatzen eta, batik bat, legediak federazioei zuzenean ezartzen dizkien lankidetzako eta aholkularitzako eginkizunetan.
n) Federakundearen estatutuak eta kirol-araudiak prestatzea.
o) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta, ahal den neurrian, bermatzea futbolaren jardunean.
p) Eta, oro har, futbol modalitatearen jarduera sustatzeko eta hobetzeko komeni den guztia ezartzea.

2.– Euskadiko Futbol Federakundeak behar beste neurri organiko eta funtzional hartuko ditu lurralde-federazioen jarduera koordinatzeko, hain zuzen ere, kirol modalitatearen garapenean jarrera ezberdinak saihestu, lana optimizatu eta egintzen batasuna lortze aldera.

3.– Helburuak ezin badira lortu lankidetzaren bidez, koordinazio-eginkizunak modu subsidiarioan egingo dira.

6. artikulua.– Eginkizun publikoak.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak izaera administratiboko eginkizun publikoak beteko ditu, EAEko Administrazio Orokorraren agente gisara jardunez.

2.– Administrazio Orokorraren babespean eta kontrolpean, izaera administratiboko honako eginkizun publiko hauek beteko ditu:

a) Lehiaketa ofizialak kalifikatu, eratu, antolatu eta baimentzea.
b) Futbolaren ordezkaritza eratu lehiaketa estataletan eta nazioartekoetan.
c) Federazio-lizentziak ematea.
d) Kirol-jardueran indarkeria prebenitu, kontrolatu eta zigortzea.
e) Dopina prebenitzea, kontrolatzea eta zigortzea.
f) Kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea.
g) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak betearaztea.
h) Estatutuak eta araudiak onartzea.
i) Administrazio publikoarekin kirol programak garatzen parte hartu eta lankidetzan aritzea.
j) Federazioen hauteskunde-prozesuak kontrolatzea.

7. artikulua.– Eskuordetzea.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak ezingo ditu inoiz delegatu berari aitortu zaizkion eginkizun publikoak, non eta aldez aurretik ez duen administrazioaren baimena. Baimena eginkizun jakin batzuetarako baino ez da emango, hain zuzen ere, euren izaera dela-eta delegatu daitezkeen eginkizunetarako.

2.– Euskadiko Futbol Federakundeak, aldez aurreko baimen hori duela, bere ordezkaritza egiten duten elkarteen gain delegatu ahal izango ditu eginkizun publiko horiek.

8. artikulua.– Diskriminazioa.

Euskadiko Futbol Federakundeak ez du inoiz diskriminatuko arraza, erlijio, iritzi, sinesmen eta beste egoera pertsonal nahiz sozialengatik.

II. TITULUA
Federazio-lizentziak eta lehiaketa ofizialak

I. KAPITULUA
FEDERAZIO-LIZENTZIAK

9. artikulua.– Definizioa.

1.– Federazio-lizentzia agiri pertsonal eta besterenezina da, zeinek titularrari Euskadiko Futboleko Federakundeko eta lurralde-federakundeko kide-izaera eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko ahalmena ematen dion, betiere lehiaketa bakoitzean dauden arauei jarraikiz.

2.– Federazio-lizentzia bakarra izango da, eta titularra Euskadiko Futbol Federakundeari eta lurraldekoari atxikita geratuko da.

10. artikulua.– Lizentziak ematea.

1.– Lurraldeko federazioak izapideak egin eta gero –eta unean-unean zehaztuko den azterketa medikoa egin ostean– Euskadiko Futbol Federakundeak emango du federazio-lizentzia. Horrek gaitu egingo du titularra Federakundeak antolatutako lehiaketetan parte hartzeko.

2.– Euskadiko Futbol Federakundea da federazioaren lizentzien agiri-, kirol- eta ekonomia-erregimena ezartzeko eskumena duen entitatea, eta lizentzia horien eskubideak eta obligazioak finkatuko ditu.

3.– Euskadiko Futbol Federakundeak borondatezko kuota gehigarria kobratu ahal izango die federatuei, Federakundearen zerbitzuak eta jarduerak finantzatze aldera.

4.– Lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia Batzar Nagusiak onartutako moduan banatuko du Euskadiko Futbol Federakundeak. Zenbateko gordinari 12.1 artikuluan ezarritako zenbatekoak gutxitzetik aterako da zenbateko garbi hori. Lurraldeko federazioek edo Euskadiko Futbol Federakundeak eskuratuko duten zenbatekoa ezingo da izan aldez aurretik adierazitako zenbateko garbiaren % 35 baino txikiagoa.

11. artikulua.– Lizentzien formatua.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak onartuko ditu lizentzien formatua eta edukia, eta lizentzia horietan, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2.– Komunikazio teknologiak ondo aprobetxatzeko aukera ematen duten baldintza teknikoak dituen euskarrian eman beharko dira lizentziak. Euskarri horien zehaztapen teknikoak Eusko Jaurlaritzan kirol kontuetan ardura duen zuzendaritzak onartu beharko ditu.

12. artikulua.– Aseguruak.

1.– Pertsona fisikoen federazio-lizentziek aseguru bana izango dute, honako arrisku hauek estaliko dituena:

a) Erantzukizun zibila.
b) Kalte-ordainak galera anatomiko edo funtzionalaren ondorioz, edo heriotzaren ondorioz.
c) Osasun sorospena eskaintzea osasun sistema publiko dohainekorik ez dutenei, baldin eta titularrak arriskuak ez baditu estalita beste aseguru baten bidez.

2.– Aurreko paragrafoan aditzera emandako aseguruen prestazioak, gutxienez, honako hauek izan beharko dute: estatu mailako lehiaketa federatuetarako Kirol Aseguru Beharrezkoaren gutxienezko prestazioak finkatzen dituen ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak edo EAEko kirol federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren garapenez ezarritakoak.

3.– Euskadiko Futbol Federakundeak denboraldi bakoitzaren hasieran hitzartutako polizen zerrenda eta horien baldintzen kopia –non bermatutako estaldura eta prestazioak zehaztuko baitira– bidaliko dizkio Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari, horien berri izan eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan.

13. artikulua.– Lizentziak ukatzea.

1.– Lizentziak modu arautuan emango dira, eta hori lortzeko beharrezko diren baldintzak betetzen dituen inori ezingo zaio ukatu lizentzia.

2.– Euskadiko Futbol Federakundea behartuta dago lizentzia –lurralde ordezkaritzak behar bezala formalizatuta– ematera edo ukatzera hilabeteko gehienezko epean, izapideak egiten diren egunaren biharamunetik hasita.

3.– Ematea eskatu ostean ez bada beren beregiko jakinarazpena egiten lehen adierazitako gehienezko epean, onartutakotzat joko da.

4.– Aurreko paragrafoetan aditzera emandako lizentziak ematea beren beregi ukatzearen kontra –ukatzea arrazoitu egin beharko da—, edo justifikagiria entregatzea ukatzearen kontra, Eusko Jaurlaritzan kirol gaiez arduratzen den zuzendaritzan errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zazpi egun naturaleko epean, gora jotzeko errekurtsorako azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako erregimenaren arabera.

5.– Euskadiko Futbol Federakundeko zuzendaritzako kideek inolako justifikaziorik izan ez, eta ez badituzte ematen aurreko paragrafoetan aipatutako federazio-lizentziak, ez badituzte ebazten eskabideak epearen barruan, edo, emanda ere, beren beregi edo ustez iruzur eginda ematen badituzte, erantzuleak izango dira eta dagokien zehapena izango dute, horrek ekar ditzakeen erantzukizun zibil eta penalaz gain.

II. KAPITULUA
LEHIAKETA OFIZIALAK

14. artikulua.– Definizioa.

1.– Euskadiko Futbol Federakundea erakunde bakarra da lehiaketa ofizialak eratu, kalifikatu edo baimentzeko, eta EAEn titulu ofizialak emateko ahalmena duena.

2.– Lehiaketa ofizialtzat hartuko dira, hain zuzen ere, Euskadiko Futbol Federakundeak halakotzat jotzen dituenak.

3.– Lehiaketa ofizial baten ondorioz baino ezingo dira eman titulu ofizialak.

15. artikulua.– Egutegia.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak egutegi berezia izango du bere lehiaketa ofizialetarako.

2.– Federazioko lizentziaren titular direnek baino ezingo dute parte hartu lehiaketa horietan, dagozkien eskubide eta obligazio guztiekin.

3.– Euskadiko Futbol Federakundearen egutegi ofiziala lurraldeko federazioen egutegi ofiziala baino lehenago onartu beharko da.

4.– Euskadiko Futbol Federakundeak bermatu egin beharko du EAE mailako lehiaketetan lurraldeko federazioen lehiaketetan lortutako emaitzak kontuan hartuko direla, parte hartze ondorioetarako.

5.– Euskadiko Futbol Federakundeak koordinatu egingo ditu bere eginkizunak, kirol lehiaketen egitura piramidal zuzena bermatuz.

III. TITULUA
FEDERAKUNDEKO ORGANOAK

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

16. artikulua.– EFF-ko organoak.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak organo hauek izango ditu, gutxienez:

A) Gobernu-organoak:
   1) Biltzar Nagusia.
B) Administrazio-organoak:
   1) Zuzendaritza Batzordea.
C) Ordezkaritza-organoak:
   1) Presidentea.

D) Barne-erregimeneko organoak:
1) Idazkaritza Nagusia.
2) Diruzaintza.
3) Zuzendaritza Teknikoa eta Kirol arlokoa.
E) Teknikariak:
1) Entrenatzaileen Euskal Batzordea.
2) Arbitroen Euskal Batzordea.
3) Areto Futboleko Euskal Batzordea.
4) EAEko Kirol Teknikarien Eskola.
F) Kirol-justiziako organoak:
1) Diziplina Batzordea.
2) Apelazio Batzordea.
3) Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.

2.– Hautapenezko organoak izango dira: presidentea, Zuzendaritza Batzordea eta Biltzar Nagusia. Gainerako organoak Euskadiko Futbol Federakundeak izendatu eta kargugabetuko ditu, libreki.

17. artikulua.– Kide izateko baldintzak.

Euskadiko Futbol Federakundearen organoetako kide izateko baldintza orokorrak honako hauek dira:

1) Adinez nagusia izatea.

2) Egoitza Federakundearen jarduera-eremuan izatea. Ezohiko egoeretan, Biltzar Nagusiak baldintza hori betetzetik salbuetsi ahal izango ditu kideak.

3) Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasuna kentzen duen diziplinazko zigor irmorik bete behar ez izatea.

4) Epai judizial irmoaren bidez kargu publikoak betetzeko gaitasuna baliogabetzen duen zigorrik ez izatea.

5) Ebazpen judizial irmoaren bidez ezgai deklaratuta ez egotea.

18. artikulua.– Berriz hautatzea.

1.– Federakundeko kide anitzeko organoetako kide guztiek, baldin eta horietako kide hautapen bidez egin badira, euren eginkizunak betetzen jarraituko dute, harik eta euren ondorengoak karguaz jabetu arte; eta berriro ere hautatu ahal izango dira, estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

2.– Edozein arrazoi dela-eta ez badute agintaldi hori betetzen, kargua utzi dutenei legokiekeen epealdi berean beteko dute euren agintea horien ordezkoek, eta utzi dutenak ezingo dira berriro aurkeztu, harik eta hautatuak izan ziren unean indarrean zegoen epealdi olinpikoa igaro arte.

19. artikulua.– Kargutik kentzeko arrazoiak.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeko organoetako kideak kargutik kentzeko arrazoiak:

a) Agintaldia bukatzea.

b) Hautapenezko karguak ez direla-eta, mugiarazi egin dituztelako, hala egokitzen denean.
c) Dimisioa ematea.
d) Kargua betetzea eragozten duen ezgaitasuna.
e) Estatutu hauetako 17. artikuluan kide hautagarria ez izateko ematen diren arrazoietakoren baten eraginpean egotea.
f) Legeetan edo estatutuetan ezarritako bateraezintasunen bat izatea.

2.– Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteari eta Zuzendaritza Batzordeari dagokienez, zentsura botoa ere beste arrazoi bat izan daiteke.

20. artikulua.– Erabakiak bete beharra.

1.– Federakundeko organoek hartutako ebazpenak eta erabakiak betearazleak izango dira, besterik ez bada ebazten; interesdunei jakinarazten zaizkien egunaren biharamunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

2.– Federazioko kide anitzeko organoen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilarekin hartuko dira, lege edo estatutu xedapenek gehiengo kualifikatuak eskatzen dituzten kasuetan izan ezik.

3.– Federakundeko organoek hartu dituzten erabaki guztien akta jaso behar du idazkariak. Aktan, honako hauek jaso beharko dira, gutxienez: bertaratutako pertsonen izena, bilera non eta noiz egin den; eztabaidatu diren puntu nagusiak; bozketa nola egin den eta haren emaitza, eta erabakien edukia.

4.– Hartutako erabakien kontrako botoak, betiere arrazoituak badira, kide anitzeko organoen erabakien eraginez eratorritako erantzukizunetik kanpo gelditukо dira.

5.– Euskadiko **Futbol Federakundeak biltzar nagusietako akten kopia bidali beharko du, lau hileko epean, biltzarrak egiten direnetik aurrera.**

II. KAPITULUA
BILTZAR NAGUSIA

21. artikulua.– Eginkizunak.

Biltzar Nagusia Federakundearen gobernu-organo nagusia da, eta, gutxienez, honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

a) Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.

b) Federakundeko kontuak eta aurrekontuak onartzea.

c) Federakundearen desegitea erabakitzea.

d) Presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura mozioa onartzea.

e) Lehiaketen egutegi ofiziala onartzea.

f) Federakundearen jarduera-plana onartzea.

g) Federakundearen estatutuak eta araudiak onartzea eta aldatzea.

h) Ondasun higiezinak izatea, besterentzea eta zergapetzea; maileguak adostea, eta zorraren edo ondare zati alikuotaren tituluak jaulkitzea.

i) Duten garrantzia dela-eta, onarpena eskatzen duten gainerako eginkizunak.

22. artikulua.– Hautaketa eta agintaldiaren indarraldia.

1.– Biltzar Nagusia lau urtetik behin aukeratuko da sufragio libre, zuzen, berdin eta sekretuz, udako joko olinpikoen urteekin bat etorriz.

2.– Salbuespenez, eta aldez aurretik berariazko administrazio-baimena eskuratuta, hauteskunde-prozesuen hasiera aurreratu edo atzeratu ahal izango da, baldin eta aurreikusitako hasiera-egunean egitea ezinezkoa bada.

I. ATALA
BILTZAR NAGUSIAREN OSAERA

23. artikulua.– Osaera.

1.– Lurralde-federazioetako estamentuetako ordezkariek osatuko dute Biltzar Nagusia.

2.– Biltzar Nagusia osatze aldera, lurralde-federazio bakoitzari ordezkari-kopuru jakin bat egotziko zaio, hain zuzen ere estamentu bakoitzean –Euskadiko Futbol Federakundean zentsatutako guztiak kontuan hartuz– adskribatuta dituzten kideen kopuruaren proportzioan.

3.– Guztira, 125 kide izango ditu. Lurralde-federazioei estamentuz estamentu dagokien kide-kopuru zehatza hauteskunde-batzordeak ezarriko du, hauteskunde bakoitza izan aurretik, onartutako hauteskunde-zentsua kontutan hartuz.

4.– Batzarreko kide guztietatik ehuneko laurogeita hamabi (115 kide) espezialitate nagusiari dagozkio, eta ehuneko zortzi (10 kide) Areto Futbolari.

24. artikulua.– Estamentuen banaketa.

Kluben eta kirol-elkarteen estamentuetako ordezkariek, kirolariek, teknikariek eta epaileek osatzen dute Biltzar Nagusia, honako proportzio honetan, bai jarduera nagusiari bai Areto Futbolari dagokienez:

a) Klub- eta kirol-elkarteen estamentuak Biltzarreko kide guztien % 70 izango du. Entitateei ordezkari bana dagokie.

b) Kirolarien estamentuak, berriz, Biltzarreko kide guztien % 15eko ordezkaritza izango du.

c) Teknikarien eta epaileen estamentuek Biltzarreko kide guztien % 15eko ordezkaritza izango dute. Ordezkaritza proportzionala izango da hauteskundeak deitzeko unean estamentu bakoitzak duen lizentzia-kopuruarekiko.

II. ATALA
BILTZAR NAGUSIKO KIDEAK HAUTATZEA

25. artikulua.– Ordezkaritza.

Lurralde-federazioetako kirol-estamentu guztiak egongo dira ordezkatuta Biltzar honetan.

Lurralde-federazioen biltzar nagusietako kide guztiek izango dute Biltzar Nagusia hautatzeko eskubidea, batzar horiek eurek ezarritako hauteskunde prozedurarekin bat etorriz.

26. artikulua.– Proportzionaltasuna.

Biltzar Nagusiko kide-kopurua finkatzerakoan, lurralde-estamentu bakoitzeko zentsuaren proportzionaltasun-printzipioa aintzat hartu beharko da.

Lurralde-biltzarrek aurreikusi beharko dute agintaldian zehar gertatzen diren bajak euren kideen artean ordezkatzeko modua.

27. artikulua.– Deialdia.

1.– Biltzar Nagusia aukeratu eta lau urte igaro baino lehen, Zuzendaritza Batzordeak hauteskunde batzordearen bilerarako deia egingo du, hauteskunde prozesuari hasiera emateko.

2.– Hori ezinezkoa balitz, Federakundeko Batzar Nagusiko kide guztien % 5 gutxienez ordezkatzen duen edozein kide-taldek hauteskunde batzorderako deialdia burutu ahal izango du.

III. ATALA
BILTZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

28. artikulua.– Bilkurak.

1.– Biltzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

2.– Urtero, gutxienez ohiko bilkura bat egingo du Biltzar Nagusiak, urteko lehen seihilekoan. Xedeak hauek izango dira:

a) Kontuen eta aurrekontuen egoera-orria onartzea.
b) Jarduera-plana onartzea.
c) Lehiaketen egutegi ofiziala onartzea.

3.– Gainerako gai oro ere ohiko Biltzarraren eskumena izango da, non eta ez diren hurrengo idatzi-zatian aurreikusitakoak; eta honako hauek ere bai:

a) Federakundearen kirol jardunari eragiten dioten erabaki eta hitzarmenak onartzea, gainerako kirol-entitate, federazio, erakunde eta korporazio publikoekin batera.
b) Norbere ondasun higiezinak besterentzea eta zergapetzea, maileguak hitzartzea eta titulu eskualdagarriak, akzioak edo obligazioak jaulkitzea.

c) Federakundearen aldeko dohaintzak, diru-laguntzak eta gainerako liberalitateak onartzea, baldin eta baldintzatuta edo kargatuta badaude.

4.– Biltzar Nagusiak ezohiko bilkura egingo du, honako gai hauek aztertzeko:

a) Hauteskundeak egitea.
b) Estatutuak onartu eta aldatzea.
c) Araudiak onartu eta aldatzea.
d) Zentsura-mozioa.
e) Federakundea desegitea.

29. artikulua.– Deialdia.

Ohiko Biltzar Nagusirako deia Federakundeko presidenteak egingo du ofizioz, edo, Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoak edo Batzar Nagusiko kideen % 5ak eskatuta.

Hori ezinezkoa balitz, edo presidenteak ez balu beteko Biltzarrerako deia egiteko obligazioa, Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoak edo Biltzarreko kideen % 5 ordezkatzen duen kide-talde batek egin ahal izango luke deialdia.

Ezohiko Batzar Nagusirako deia Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak egingo du ofizioz. Zuzendaritza Batzordeko kideek edo Biltzar Nagusiko kideen % 5ak eskatuta ere deitu ahal izango da.

Hori ezinezkoa balitz, edo lehendakariak ez balu beteko Biltzarrerako deia egiteko obligazioa, Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoak edo Biltzarreko kideen % 5 ordezkatzen duen kide-talde batek egin ahal izango luke deialdia.

Horretarako eskumena duten edozein organo edo taldek eskaera egin eta gehienez 15 eguneko epean egin beharko du presidenteak Biltzar Nagusirako deialdia.

30. artikulua.– Deialdia egiteko eskumena.

Ohiko zein Ezohiko Biltzar Nagusirako deia Federakundeko presidenteak egingo du idatziz, biltzarra egin baino 15 egun lehenago gutxienez. Biltzarreko gai-zerrenda, lekua, eguna eta ordua adierazi beharko dira, eta bai bigarren deialdirako zitazioa ere, zeina ordu erdi geroago egingo baita.

31. artikulua.– Gai-zerrenda.

Gai-zerrendan interesekoak diren gaiak txertatzea eska diezaiokete Biltzarreko kideek presidenteari, betiere eskabidea Biltzarreko kideen % 15ek gutxienez proposatzen badu, eta biltzarra egin baino hamar egun lehenago aurkezten bada gutxienez.

32. artikulua.– Eratzea.

Biltzar Nagusia lehen deialdian baliozkoa izango da, baldin eta kideen erdiak gehi bat bertaratzen badira. Bigarren deialdian balioa izateko, ez du ardura izango zenbat bertaratzen diren.

Biltzar Nagusian ez da onartuko botoaren eskuordetzea.

33. artikulua.– Bozketa.

Estatutu hauetako 28.4.a) artikuluan aipatzen diren erabakiak hartzeko botoa sekretua eta idatzizkoa izango da beti. Biltzar Nagusiko gainerako bozketak modu horretan egin daitezke, edo, bestela, ahoz, edo eskua jasota, presidenteak erabakitakoaren arabera.

Parte hartzen duten kideen gehiengo soilez hartuko dira Biltzar Nagusiko erabakiak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, estatutu hauetako 28. artikuluaren 4. paragrafoko b), d) eta e) idatzi-zatietan aditzera emandako erabakiak eta ebazpenak onartzeko, beharrezkoa izango da Biltzarrean parte hartzen duten kideen bi herenen aldeko botoa.

III. KAPITULUA
PRESIDENTEA

34. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak federakundearen legezko ordezkaritza hartzen du bere gain; Batzar Nagusiak eta, hala denean, Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak gauzatzen ditu; biek egindako saioen buru izango da, eta saio hauek zuzenduko ditu. Bestalde, berdinketa gertatzen bada, bere kalitateko botoa baliatuz erabakiko du.

2.– Lehendakaria lau urterik behin hautatuko du Batzar Nagusiak bere kideen artetik, sufragio libre, zuzen, berdin eta sekretuz, horretarako arauz ezarritako prozedurari jarraikiz. Hautagai bakarra izanez gero, ez da bozketarik egingo.

3.– Hautatu den hautagaitzako burua izango da Euskadiko Futbol Federakundeko presidentea.

4.– Presidentea berriro aukeratu ahal izango da hurrengo hauteskundeetan, gehienez ere sei agintalditarako.

5.– Agintean dagoen bitartean presidenteak ezingo du izaera bereko kargurik bete kirol modalitate bereko edo ezberdineko beste federazioren batean, eta ez da bateragarria izango bere kargua kirol-klub edo -elkarte bateko presidente-jardunarekin, edo futbol-jokalari, arbitro edo entrenatzaile jardunekin. Lizentziari eutsiko dio –baldin eta halakorik badu–, zeina suspentsoan egongo baita Euskadiko Futbol Federakundeko presidente kargua utzi arte.

6.– Edozein arrazoi dela-eta ezingo balu bete bere agintaldia oso-osorik, hutsunea betetzen duenaren agintaldiak ordezkatuarena bukatu artean iraungo luke.

7.– Gertatzen bada presidentea gaixorik egotea, kanpoan, edo bere eginkizunak aldi batean betetzea eragozten duen beste arrazoiren bat izatea, orduan presidenteak berak izendatutako presidenteordeak hartuko luke haren lekua.

35. artikulua.– Eginkizunak.

Betearazpen- eta ordezkapen-organo modura dagozkion eginkizunez gain, honako hauek ere badagozkio presidenteari:

a) Biltzar Nagusirako deia egin, eta bileretako buru izatea.

b) Biltzar Nagusiak hartutako erabakiak betetzea sustatu eta horiek gauzatzen ahalegintzea.

c) Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deia egin, eta horietako buru izan eta gai-zerrenda jartzea.

d) Euskadiko Futbol Federakundearen izenean ordainketak egiteko agindua ematea.

e) Letratuei, prokuradoreei edo agintea duten gainerako pertsonei botere bereziak edo orokorrak ematea, Euskadiko Futbol Federakundearen ordezkaritza legala izan dezaten, bai judizioan bai hortik kanpo ere.

f) Biltzar Nagusiak egozten dizkion eskumen guztiak eta estatutu hauetan egotzitakoak ere bai.

36. artikulua.– Kargua uzteko arrazoiak.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak kargua uzteko arrazoiak:

a) Dimisioa eman duelako, hil egin delako edo absentzia-deklarazioa izan delako.
b) Zentsura-mozioa onartu delako.
c) Habilitaziorik gabe uzteagatik edo gaitasuna galtzeagatik.
d) Agintaldia amaitzeagatik.
e) Estatutu hauetan jasotako bateraezintasun- edo hautaezintasun-kausaren batek eraginda egotea.
f) Zuzendaritza Batzordeko kideek euren karguak uzteko 42.1 artikuluko a) eta c) idatzi-zatietan adierazitako arrazoiak.

2.– Presidenteak bere kargua utzi ondoren, funtzioetan jarraituko du, eta Hauteskunde Batzorderako deia egingo du hilabeteko gehienezko epean, hauteskunde-prozesuari hasiera emateko.

Hori ezinezkoa balitz, Biltzar Nagusiko kide guztien % 5 gutxienez ordezkatzen duen edozein kide-taldek Hauteskunde Batzorderako deia egin ahal izango du.

IV. KAPITULUA
ZUZENDARITZA BATZORDEA

37. artikulua.– Definizioa.

Zuzendaritza Batzordea Federakundeko administrazio-organoa da, eta Federakundeko gaien administrazio- eta ekonomia-kudeaketaz arduratuko da. Egiteko horiek Biltzar Nagusiaren arauei jarraikiz garatu beharko ditu.

38. artikulua.– Osaera.

1.– Zuzendaritza Batzordeko kide-kopurua bakoitia izango da.

2.– Zuzendaritza Batzordeak presidenteorde bat izango du, eta berau arduratuko da lehendakariaren eginkizunez, baldin eta lehendakaria hautatu gabe, kanpoan edo gaixorik badago. Lurralde federazioetako presidenteak ere eskubide osoko kideak izango dira presidenteorde modura.

3.– Biltzar Nagusiko kide ez diren Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak joan ahal izango dira biltzarretara. Hitza izango dute, baina botorik ez.

4.– Bateraezina da zuzendaritzako kide izatea eta, aldi berean, Federakundeari kontseilu edo aholku profesionala ematea. Ezingo da, halaber, zuzendaritzako kide izan eta, aldi berean, Federakundeari zerbitzu profesionalak eskaintzea lan- edo merkataritza-lotura edo lotura zibila tarteko dela.

5.– Bateraezina izango da, halaber, jokalari, arbitro edo entrenatzaile izatearekin, nahiz bere lizentziarekin jarraituko duen –halakorik baldin badu– eta suspentsoan iraungo duen agintaldian.

6.– Zuzendaritza Batzordeak presidenteorde bat izango du, eta berorrek hartuko ditu presidentearen zereginak, estatutu hauetako 36.2 artikuluan adierazitako arrazoiren bat dela-eta aldi batean egon ez edo kargua uzten badu presidenteak.

39. artikulua.– Hautaketa.

Zuzendaritza Batzordeko kideak lau urtetik behin aukeratuko dira –Biltzar Nagusia berriztatu eta gero– udako joko olinpikoekin batera. Botoen gehiengoa lortu beharko dute, eta sufragioa librea, zuzena eta sekretua izango da. Botoa emateko eskubidea biltzarkide guztiek izango dute. Hori guztia hauteskunde prozedurarekin bat etorriz. Zuzendaritza Batzordeko kideak berriro aukeratu ahal izango dira hurrengo hauteskundeetan, gehienez sei agintalditarako.

40. artikulua.– Bilkuretarako deialdia.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteari edo, hori izan ezean, Zuzendaritza Batzordeko kideen % 25ari egokituko zaie batzorde horretako bileretarako deia egitea.

2.– Deialdiarekin batera gai-zerrenda bidaliko da, eta hor jasoko dira, bileran aztertuko diren gaiak.

3.– Gai-zerrenda hori, gutxienez, bilera egin baino bi egun lehenago jakinarazi beharko zaie batzordeko kideei, behar bezala justifikatutako premia dagoenean salbu.

4.– Hala ere, aldez aurretik deialdirik egon ez arren, batzordea baliozkotzat hartuko da, kide guztiak joaten badira eta aho batez hala erabakitzen badute.

5.– Parte hartzen dutenen gehiengo soilez onartuko dira erabakiak, eta lehendakariaren kalitate botoak ebatziko ditu berdinketak. Erabaki horiei ezingo zaie errekurtsorik aurkeztu Federakundeko justizia-organoetan.

6.– Zuzendaritza Batzordeak posta elektronikoz, faxez, bideokonferentziaz eta antzeko baliabide teknikoak baliatuz hartu ahal izango ditu erabakiak, betiere kide guztiek berariaz hala onartzen badute. Kasu horietan, dagokion aktarekin batera, faxaren, mezu elektronikoen eta dagozkien euskarrien ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira.

41. artikulua.– Eratzea.

Zuzendaritza Batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da, lehen deialdira kideen erdia gehi bat bertaratzen badira, eta bigarren deialdira, gutxienez, kideen % 25 bertaratzen denean. Nolanahi ere, Federakundeko presidentea edo presidenteordea beti bertaratu beharko da.

Euskadiko Futbol Federakundeko presidentea edo, bera ez badago, izendatutako presidenteordea izango da Zuzendaritza Batzordearen bileretako buru eta haren jarduna zuzendu eta gidatuko duena.

42. artikulua.– Kargua uzteko arrazoiak.

1.– Zuzendaritza Batzordeak, presidentea barne dela, honako arrazoiren batengatik utziko du kargua:

a) Kideen % 50ek dimisioa emateagatik edo hiltzeagatik.
b) Zentsura-mozioa onartu delako.
c) Kideen % 50 ezgaitzeagatik edo inhabilitatzeagatk.
d) Agintaldia amaitzeagatik.

2.– Zuzendaritza Batzordeko kideek banaka utziko dituzte euren karguak, aurreko puntuko a), c) eta d) idatzi-zatietan adierazitako arrazoi berberengatik.

3.– Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok kargua uzten badute, presidentea salbu, zerrendan zeuden hurrengoek ordezkatuko dituzte. Ordezkorik ez badago, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek gehiengo osoz aukeratu ahal izango dituzte ordezkoak, hautaketa bidez. Nolanahi ere, Biltzar Nagusiaren lehenengo bilkuran berretsi beharko da hautaketa hori.

43. artikulua.– Zentsura-mozioa.

Biltzar Nagusiak presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna eskatu dezake zentsura-mozio baten bidez. Zentsura-mozioak Biltzar Nagusiko kideen gehiengo osoa alde izan beharko du, xede horretarako deitutako bileran.

Zentsura-mozioak onartzeak Zuzendaritza Batzordeko kide guztien kargu-uztea dakar, baita Euskadiko Futbol Federakundeko presidentearena ere.

44. artikulua.– Prozedura.

1.– Zentsura-mozioa presidenteari eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaie, proposatzaile bakoitzak arrazoitutako eta izenpetutako idazkiz formalizatua. Horri NANaren kopia erantsiko zaio. Behinik behin biltzarkideen % 5ek

formalizatu beharko du, eta presidente eta Zuzendaritza Batzordeko titular berria aukeratzeko proposamena ere jasota izan beharko du.

2.– Presidenteak idazkia jaso ondoren, Ezohiko Biltzar Nagusirako deia egingo du, bertako aztergai bakarra zentsura-mozioan azaldutako eskaria izango delarik. Hilabeteko epean egin beharko du Biltzarrerako deia, eskaria aurkezten den egunetik aurrera.

3.– Biltzar Nagusirako deia egin, eta eztabaidari ekin ahal izateko, proposamen horren alde agertu beharko du Biltzar Nagusiko kideen gehiengo soilak, betiere kideen erdiak gehi bat agertzen badira.

4.– Bilerari hasiera emanda, zentsura aurkeztu dutenek aukeratutako ordezkari batek hitz egingo du, eta mozioaren arrazoiak azalduko ditu. Presidenteak erantzun ondoren, bozketa egingo da.

5.– Biltzar Nagusia osatzen duten eskubide osoko kideen bi herenen gehiengoak onartu beharko du mozioa, eta ez da inola ere posta bidezko botorik onartuko.

6.– Zentsura mozioa onartzeak presidentearen eta Zuzendaritza Batzordeko kide guztien kargu uztea dakar.

45. artikulua.– Agintaldiaren amaiera.

Presidenteak eta Zuzendaritza Batzordeak kargua uzten badute, euren agintaldia amaitu egin delako, funtzioetan jarraituko dute, eta presidenteak Hauteskunde Batzordea deitu beharko du, hilabeteko gehieneko epearen barruan, hauteskunde prozesuari hasiera eman diezaion.

Hori ezinezkoa balitz, gutxienez Biltzar Nagusiko kide guztien % 5 ordezkatzen duen edozein kide-taldek Hauteskunde Batzorderako deia egin ahal izango du.

V. KAPITULUA
BARNE ERREGIMENEKO ORGANOAK

I. ATALA
IDAZKARI NAGUSIA

46. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeko idazkari nagusia presidenteak izendatuko du, eta zuzenean presidentearen menpe arituko da. Federakundearen administrazio antolakuntza hartuko du bere gain, eta, zehazki, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Biltzar Nagusiko eta Zuzendaritza Batzordeko bileren aktak egin, eta organo horietan eta sor litezkeen batzordeetan idazkari-lanak egitea.
b) Organo meritatu horien egintzen ziurtagiriak ematea.
c) Presidenteari eta Zuzendaritza Batzordeari argibideak ematea, hala eskatzen zaionean.
d) Ohiko kontuak ebaztea.
e) Euskadiko Futbol Federakundearen pertsonal burua izatea.
f) Federazioko organoen erabakiak zehatz betetzen direla bermatzea.
g) Jakinarazpenak izenpetzea.

2.– Idazkari orokorrak aukeratzea Euskadiko Futbol Federakundeko presidentearen eskumena da, eta beronek inor izendatzen ez badu, bere gain hartuko ditu idazkariaren zereginak, nahiz bere ustez egokiak direnengan delega ditzakeen zereginok.

47. artikulua.– Aktak.

Aurreko artikuluko 1.a) idatzi-zatian aipatzen diren aktetan honako hauek zehaztu beharko dira: parte hartu duten pertsonen izenak, interbentzioen laburpena, egoki iritzitako gainerako gorabeherak, bozketen emaitza –aldeko botoak, kontrakoak, partikularrak eta abstentzioak–, eta hartutako erabakiak.

II. ATALA
DIRUZAINA

48. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

Euskadiko Futbol Federakundeko Zuzendaritza Batzordeak bere kideen artean aukeratuko du diruzaina; gutxienez honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Euskadiko Futbol Federakundearen kontu eta eragiketa ekonomikoak gidatzea.

b) Euskadiko Futbol Federakundearen kontabilitate-liburuak zaindu eta horien ardura hartzea.

c) Beharrezkoak diren kontabilitateko dokumentu guztiak prestatzea, bereziki, urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzaren balantzea, gero Biltzar Nagusiak onar ditzan.

III. ATALA
KIROL ZUZENDARI TEKNIKOA

49. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

Kirol zuzendari teknikoa Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du, eta Euskadiko Futbol Federakundearen kirol zuzendaritza teknikoaz arduratuko da eta, batik bat, honako eginkizun hauetaz:

a) Hautatzaileak izendatzeko edo horiek kargutik kentzeko proposamena egitea Zuzendaritza Batzordeari.

b) Selekzioen kirol jarduera planifikatu, parte hartzen duten lehiaketen arabera.

c) Selekzioen kontzentrazio programa eta bidaia planak prestatu, eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, parte hartzen duten lehiaketen arabera.

d) Lurraldeko federazioekin koordinatu eta batera lan egitea, selekzioen lurralde arteko lehiaketak antolatzen.

e) Kirol-proiektuak, egiturak, lehiaketetako hobekuntzak eta gainerakoak prestatu eta proposatzea, helburua izanik futbola bere diziplina guztietan sustatzea.

VI. KAPITULUA
ORGANO TEKNIKOAK

I. ATALA
ENTRENATZAILEEN EUSKAL BATZORDEA

50. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Entrenatzaileen Euskal Batzordeak, lankidetza erregimenean, lurralde federazioetako entrenatzaile batzordeak hartzen ditu bere baitan, entrenatzaile-taldearen funtzionamenduaz arduratzen da zuzenean, eta batzorde horiei egotzitako eginkizunak gobernatu, ordezkatu eta administratzen ditu, Euskadiko Futbol Federakundearen menpe, betiere.

2.– Batzordeak berari dagozkion gaietan egindako proposamenak Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteari bidaliko zaizkio, behin betiko onar ditzan.

3.– Entrenatzaileen Euskal Batzordeko presidentea Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak izendatuko du, eta batzordearen osaera, funtzionamendu-erregimena eta eskumenak erregelamendu bidez ezarriko dira.

II. ATALA
ARBITROEN EUSKAL BATZORDEA

51. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Arbitroen Euskal Batzordeak, lankidetza erregimenean, lurralde federazioetako arbitroen batzordeak hartzen ditu bere baitan, arbitro-taldearen funtzionamenduaz arduratzen da zuzenean, eta batzorde horiei egotzitako eginkizunak gobernatu, ordezkatu eta administratu egiten ditu, Euskadiko Futbol Federakundearen menpe, betiere.

2.– Euskadiko Futbol Federakundeak antolatzen dituen jarduera eta lehiaketetako zeregin arbitralak zuzentzeaz eta antolatzeaz arduratuko da Arbitroen Euskal Batzordea, eta lurralde batzordeekin batera lan egingo du kolegiatuak erakartzen eta trebatzen.

3.– Batzordeak berari dagozkion gaietan egindako proposamenak Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteari bidaliko zaizkio, behin betiko onar ditzan.

4.– Arbitroen Euskal Batzordearen presidentea Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak izendatuko du, eta batzordearen osaera, funtzionamendu-erregimena eta eskumenak erregelamendu bidez ezarriko dira.

5.– Arbitroen Euskal Batzordea diziplina ahalmenaz baliatuko da, nahiz eta kolegiatuen jardunaren alderdi teknikoak baino ez dituen ukituko.

III. ATALA
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

52. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Areto Futboleko Euskal Batzordeak, lankidetza erregimenean, lurralde federazioetako areto futboleko batzordeak hartzen ditu bere baitan, eta espezialitate

hori sustatu, kudeatu, antolatu eta zuzentzen du, Euskadiko Futbol Federakundearen menpe, betiere.

2.– Batzordeak berari dagozkion gaietan egindako proposamenak Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteari bidaliko zaizkio, behin betiko onar ditzan.

3.– Areto Futboleko Euskal Batzordeko presidentea Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak izendatuko du, eta batzordearen osaera, funtzionamendu-erregimena eta eskumenak erregelamendu bidez ezarriko dira.

IV. ATALA
KIROL TEKNIKARIEN EUSKAL ESKOLA

53. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Kirol Teknikarien Euskal Eskola Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako zentro pribatua da, eta bere zentroetan hainbat irakasgai ematen dira, hiru lurralde historikoetan, futboleko eta areto futboleko kirol teknikarien eta goi mailako kirol teknikarien tituluak lortzeko, aplikagarriak diren arauekin bat etorriz.

2.– Euskadiko Futbol Federakundeko presidentea izango da, Kirol Teknikarien Euskal Eskolako zuzendari.

VII. KAPITULUA
KIROL JUSTIZIAKO ORGANOAK

I. ATALA
XEDAPEN OROKORRAK

54. artikulua.– Organoak.

Kirol justizia ezartzea helburu duten organoak honako hauek dira:

a) Diziplina Batzordea.

b) Apelazio Batzordea.

c) Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.

55. artikulua.– Araudia.

Zehapen zuzenbideko irizpide orokorrak, Kirol Diziplinako Araudiari buruzko urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua eta gainerako garapen araudiak aintzat hartuz garatzen da futboleko eta areto-futboleko diziplina erregimena, Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legean izaera orokorrez jasotakoa. Xedapenok aplikagarriak izango dira diziplinako araudi propiorik ez daukaten lurralde federazioetan.

56. artikulua.– Diziplina-arloa.

Kirol diziplinaren ahalmen-eremuak dira joko- edo lehiaketa-arauen urraketak eta kirol-jarreraren urraketak, zeintzuk aurreko artikuluan aipatutako xedapenen arabera araututa baitaude, horietan ezarritako moduan.

57. artikulua.– Eremu pertsonala.

Euskadiko Futbol Federakundeak bere egitura organikoa osatzen duten pertsona guztien gain izango du diziplina-ahalmena; baita klub eta kirolari, teknikari, gidari eta arbitroengan ere; eta, oro har, Euskadiko Futbol Federakundeari atxikita egonda, euren funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu edo karguak betetzen dituztenengan.

II. ATALA
DIZIPLINA BATZORDEA

58. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Diziplina Batzordearen ardura izango da afiliatu guztiengan diziplina ahalmena gauzatzea, eta berak ebatziko ditu Euskadiko Futbol Federakundeak antolatutako jarduera edo lehiaketetan izaten diren gorabeherak eta auziak.

2.– Hiru kidek osatuko du Batzordea, hirurak Zuzenbidean lizentziatuak. Euskadiko Futbol Federakundeak izendatuko ditu.

3.– Diziplina Batzordearen erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta Apelazio Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

4.– Areto-futboleko partidetan edo lehiaketetan izandako gertakarien gaineko diziplina-eskumenak txapelketako epaile bakarrak baliatuko ditu. Zuzenbidean lizentziaduna izango da epaile hori, eta Euskadiko Futbol Federakundeak izendatuko du, Areto Futboleko Euskal Batzordearen proposamenez.

III. ATALA
APELAZIO BATZORDEA

59. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Batzordearen ebazpenen nahiz Areto Futboleko epaile bakarrak eta lurralde federazioetako diziplina organoak hartutako ebazpenen kontrako errekurtsoez arduratuko da Apelazio Batzordea.

2.– Gutxienez, hiru kidek osatuko du Batzordea, hirurak Zuzenbidean lizentziatuak. Euskadiko Futbol Federakundeak izendatuko ditu.

3.– Bere erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta Kirol Justiziako EAEko Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

IV. ATALA
JURISDIKZIO- ETA ADISKIDETZE-BATZORDEA

60. artikulua.– Definizioa eta izendapena.

1.– Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeari dagokio diziplina- edo lehiaketa-arlokoak ez diren auzien, uzien edo erreklamazioen berri izan eta horiek ebaztea, betiere federazio-antolakuntza osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen artekoak edo horiek sustatuak badira.

2.– Diziplina Batzordeko kideek osatuko dute.

3.– Jurisdikzio Batzordearen erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta Kirol Justiziako EAEko Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

4.– Adiskidetze Batzordearen erabakiak gehiengoz onartuko dira, eta amaiera emango diote kirol bideari.

IV. TITULUA
Kide afiliatuak edo Federakundeko estamentuak

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

61. artikulua.– Lurralde-antolaketa.

Euskadiko Futbol Federakundeak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde federazioak biltzen ditu lankidetza-erregimenean, eta, horien bidez, kirolarien, teknikarien eta epaileen estamentuak, guztiak ere federazio-lizentzien eta lurralde federazioetara atxikitako kirol-kluben eta -elkarteen lizentziaren titularrak.

62. artikulua.– Eskubideak.

Futboleko Euskadiko Federakundearen estamentuetako kideek, gutxienez, honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Federakundeko administrazio- eta gobernu-organoetan ordezkaritza izatea eta horietako kide izatea, estatutu hauen eta aplikagarria den arautegiaren arabera ezarritako eran eta proportzioan.

b) Federakundeak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea, arlo honetan dituen arauen arabera.

c) Kirol hau hobeto garatze aldera eskatzen duten informazio guztia jasotzea, eta Federakundeko gaien inguruan bere irizpide nahiz iritziak modu askean adieraztea.

d) Federakundearen arauak bete daitezela eskatzeko Federakundeko eskumeneko organoetara jotzea.

e) Egoki iruditzen zaizkien kontsultak eta erreklamazioak egitea, federakundearen arauei jarraikiz.

f) Federazio-lizentzia egiaztatzen duen dokumentua eskuragarri izatea.

63. artikulua.– Deberes.

Federakundearen estamentuetako kideek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Kuotak ordaintzea.

b) Federakundearen organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak betetzea.

c) Federakundearen helburuak lortzeko aktiboki lan egitea.

d) Hala dagokionean, betetzen dituzten karguen berezko betebeharrak leialki betetzea.

II. KAPITULUA
FUTBOLARIAK

64. artikulua.– Definizioa.

Estatutu hauen arabera, honako hauek izango dira futbolariak: futbol kirola Euskadiko Futbol Federakundeak kontrolatu eta araututako modalitate eta espezialitateetan praktikatu eta lehiatzeko federazioaren lizentzia borondatez eskuratzen dutenak.

Biltzar Nagusiak ezarriko ditu, hala behar bada, zein mota edo kategoriatan sailkatuko diren, afizionatuen eta profesionalen oinarrizko bereizketa kontuan hartuz.

65. artikulua.– Eskubideak.

Federatutako futbolarien eskubideak honako hauek dira:

a) Kirol lizentzia formalizatzea.

b) Bere lurraldean –bai EAEn, bai hortik kanpo– egiten diren kirol-lehiaketa eta -jardueretan eta federazioa ordezkatzen dutenetan parte hartzea.

c) Futbolean aritzearen ondorioz behar duten atentzio medikoa, sanitarioa eta asistentziala jasotzea.

d) Federakundea norbere borondatez uztea.

e) Klubetarako adierazitakoak.

66. artikulua.– Betebeharrak.

Federatutako futbolarien betebeharrak honako hauek dira:

a) Klubak parte hartzen duen kirol-lehiaketetara eta –jardueretara joatea.

b) Federakundearen diziplina, araudiak eta estatutu hauek betetzea.

c) Euskal selekzioek eta lurralde selekzioek kirol-lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

d) Kuotak ordaintzea.

III. KAPITULUA
ENTRENATZAILEAK ETA ARBITROAK

67. artikulua.– Entrenatzaileak: definizioa.

Estatutu hauen ondorioetarako, entrenatzaileak dira, tituluaren jabe izanda eta afiliatuta egonda, futbol-taldeak modalitate edo espezialitate guztietan zuzentzeko gaitasuna dutenak.

68. artikulua.– Arbitroak: definizioa.

Estatutu hauen ondorioetarako, arbitroak dira kolegiatuta dauden eta Euskadiko Futbol Federakundeak halakotzat hartzen dituen arbitro titulatuak, betiere Federakundeak berak emandako baimena badute hark antolatzen dituen lehiaketetan teknika- eta zuzendaritza-eginkizunak betetzeko haren lurralde-eremuan edo, arbitroak izendatzea Federakundeari dagokionean, haren lurraldez gaindi.

IV. KAPITULUA
KLUBAK

69. artikulua.– Definizioa.

Estatutu hauen ondorioetarako, klubak dira nortasun juridikokoa eta jarduteko gaitasuna duten irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuak, futbolean jokatzea eta lehiaketa ofizialetan parte hartzea helburu dutenak.

70. artikulua.– Araudia.

Klubak, osaerari eta funtzionamenduari dagokienez, honako xedapen hauen ildotik arautuko dira: Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legea; Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua, Kluben eraketa eta funtzionamendua arautzen duena; xedapen horien garapen-arauak; estatutu hauek eta biltzar nagusiek eta gainerako organoek baliotasun osoz hartutako erabakiak.

71. artikulua.– Atxikipena.

Hiru lurralde historikoetako klubak dagokion lurralde-federazioari atxikiko zaizkio, futbolean jokatu eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko. Atxikipena urterokoa eta berriztagarria izango da.

72. artikulua.– Eskubideak.

Hauek dira kluben eskubideak:

a) Lurralde-federazioak antolatzen dituen lehiaketa ofizialetan parte hartzea –baldin eta horretan afiliatuta badaude–, Euskadiko Futbol Federakundeak antolatutakoetan parte hartzea, eta bai goragoko faseetan parte hartzea ere, baldin eta, sailkapenaren arabera, horretarako eskubidea badute.

b) Espainiako edo atzerriko beste talde batzuekin lagunarteko partidak jokatzea, beharrezkoak diren baldintzak betetzen badira.

c) Eskudun organoetara jotzea, federazioaren arauak eta horietatik eratorritako kirol-obligazioak betetzea eskatzeko.

d) Edozein eratako kontsulta edo erreklamazioak igortzea organo horietara, eta federazioko agirien gaineko argibideak eskatzea.

73. artikulua.– Betebeharrak.

Hauexek dira kluben betebeharrak:

a) Federazioaren kuotak eta eskubideak puntualki ordaintzea, dagokion eran.

b) Lurralde-federazioari eta Euskadiko Futbol Federakundeari jokalariak uztea, klubei hala eskatzen dietenean, federazio gisa parte hartzen duten lehiaketetarako.

c) Legez onartutako eta argitaratutako federazio-erregelamendu eta –araudi guztiak onartzea, bai eta federazioko organoek baliotasunez hartutako erabakiak ere.

V. TITULUA
HAUTESKUNDE-ERREGIMENA

74. artikulua.– Araudia.

Euskadiko Futbol Federakundearen hauteskunde erregimena EAEko kirol federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren VII. tituluan, hori garatzeko ematen diren xedapenetan, estatutu hauetan eta hauteskunde araudian xedatutakoak arautuko du.

75. artikulua.– Hauteskunde Batzordea.

1.– Federakundean, hauteskunde-prozesua sustatzeaz eta haren garapen egokiaz arduratzen den hauteskunde-batzorde bat egongo da, eta hiru kidez osatua egongo da.

2.– Hauteskunde Batzordearen funtzioak lau urteko denbora-eperako izango dira; hala ere, Biltzar Nagusiak denbora-epe hori bukatu baino lehen kargutik ken dezake, edo beste bat izendatu.

3.– Desegindako Hauteskunde Batzordeak jardunean jarraituko du batzorde berria izendatu arte.

76. artikulua.– Osaera.

1.– Hauteskunde Batzordea hiru kidek eta beste hiru ordezkok osatuko dute. Biltzar Nagusiak aukeratuko ditu kideok, Federakundeko kideen artean, haien ezagutza aintzat hartuta, hauteskunde-prozesua hasi aurreko ohiko azken bilkuran; hiru kide horien artean, lehendakaria eta idazkaria izendatuko ditu.

2.– Hautagaiak ezingo dira Hauteskunde Batzordeko kide izan: aukeratutako Hauteskunde Batzordeko kideren bat hautagaia baldin bada, kargua utzi beharko du, eta izendatutako ordezkoak beteko du haren tokia.

77. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Hauteskunde Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Hautesleen errolda eta hauteskunde-egutegia onartzea.
b) Aurkeztutako hautagai-zerrendak aditzera eman eta argitaratzea.
c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.
d) Hautetsiak zein diren adieraztea.
e) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak, eta eskaerak ebaztea, bai eta hauteskunde-mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekurtsoak ere.
f) Hauteskundeei eta emaitzei zuzenean eragiten dien edozein auzi.

2.– Hauteskunde Batzordeak hartzen dituen erabakiak aurkaratu daitezke, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

78. artikulua.– Hauteskunde-mahaia.

Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez diren hautesleen artean, hiru kiderekin osatutako hauteskunde-mahai bat izendatuko du, zozketa bidez (hiru ordezko ere izendatuko ditu). Mahaiko presidentea eta idazkaria kiderik zaharrena eta gazteena izango dira, hurrenez hurren.

79. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Hauek dira hauteskunde-mahaiaren eginkizunak:

a) Hauteskundeen garapen zuzena bermatzea.
b) Boto-emaileak nortzuk diren, eta hautesleak direla egiaztatzea.
c) Emandako botoen baliozkotasuna erabakitzea.
d) Bozketa bukatu eta gero botoak zenbatzea.
e) Bozketarekin zerikusia duen beste edozein gairen inguruan erabakitzea.

2.– Hauteskunde-mahaiak hartutako erabakien aurka egin daiteke, hauteskunde-batzordearen aurrean.

80. artikulua.– Informazio-eskubidea.

Hauteskunde-prozesuari buruzko gainerako kontuak hauteskunde-araudiaren bidez arautuko dira, eta, betiere, bermatu beharko da Federakundeko kirol-estamentu guztiek argibideak jasotzen dituztela eta federatu modura dituzten eskubideez baliatu ahal direla.

VI. TITULUA
EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

81. artikulua.– Araubidea.

Euskadiko Futbol Federakundeak berezko aurrekontu- eta ondare-araubidea du. Ekonomikoki, Euskadiko Futbol Federakundeak betebeharrei erantzuten die egun dituen eta etorkizunean izango dituen ondasun guztiez baliatuz.

II. KAPITULUA
BALIABIDE EKONOMIKOAK

82. artikulua.– Ondarea.

1.– Euskadiko Futbol Federakundearen ondarea bere titularitateko ondasunez osatzen da.

2.– Euskadiko Futbol Federakundearen baliabide ekonomikoak, besteak beste, honako kontzeptu hauez osatuta daude:

a) Federatuen kuotak.
b) Erakunde publikoek eman ditzaketen diru-laguntzak.
c) Dohaintzak, herentziak, legatuak eta sariak.
d) Antolatzen dituen kirol-jardueretan eta -lehiaketetan ateratako mozkinak.
e) Industria eta merkataritza-jardueretan, jarduera profesionaletan edo egindako zerbitzuetan ateratako mozkinak.
f) Ondareko etekinak eta hori besterentzearen/zergapetzearen produktua, 90. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.
g) Lortzen dituen mailegu eta kredituak.
h) Espainiako Futbol Errege Federazioak izendatzen dizkion aurrekontu-dotazioak.
i) Diziplina-ahalmenaz baliatzearen eraginez izandako zehapenen, isunen eta gainerakoen diru-zenbatekoak.
j) Bere jarduera garatzerakoan lor ditzakeen bestelakoak.

83. artikulua.– Zor-tituluak.

1.– Zorraren eta ondare-zati alikuotaren ordezkapen-tituluak Federakundeko kideek baino ezingo dituzte harpidetu, eta horien jabetzak ez die inolako eskubide berezirik emango jabeei, non eta ez den horietarako indarreko legeetan ezarritako interesak jasotzea.

2.– Zorraren edo ondare-zati alikuotaren ordezkapen-tituluak Biltzar Nagusiak ezarritako baldintzetan eskuz aldatu ahal izango dira.

84. artikulua.– Gordailuak.

Euskadiko Futbol Federakundeak bere eginkizunak betetzeko eskuragarri dituen zenbatekoak kreditu-, aurrezki- edo banku-entitate batean gordailatu beharko dira, Federakundearen izenean.

III. KAPITULUA
AURREKONTUA

85. artikulua.– Onartzea.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak urtero onartuko du ekitaldiko aurrekontua, bai eta aurreko ekitaldiari dagozkion likidazioa eta balantzea ere.

2.– Administrazio-organoa arduratuko da aurrekontuaren proiektua urtero egiteaz, eta Biltzar Nagusiak onartuko du.

3.– Euskadiko Futbol Federakundeak gehienez onartu ditzakeen betebeharrak, eta dagokion ekitaldian likidatzea aurreikusten diren eskubideak aurrekontuan adieraziko dira zehaztuta, batuta eta era sistematikoan emanda.

4.– Aurrekontu bakarra egongo da, eta Euskadiko Futbol Federakundearen gastu eta diru-sarrera guztiak barne hartuko ditu, bai eta Federakundearen organo osagarrienak edo erakunde instrumentalenak ere. Kudeaketa- eta antolakuntza-beharrizanek hala eskatzen dutenean, sistema zentralean behar bezala integratutako azpi-entitate kontableak sortu ahal izango dira.

5.– Aurrekontuak modu orekatuan onartuko dira, eta ezingo dira inoiz aurrekontu defizitarioak onartu, aldez aurretik dagokion kirol-administrazioaren baimena lortu gabe.

6.– Behin Biltzar Nagusiaren onespena lortuta, aurrekontuaren eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa Eusko Jaurlaritzan kirol-gaietan ardura duen organoari bidaliko zaizkio.

7.– Euskadiko Futbol Federakundeko Zuzendaritza Batzordeak, estatutu hauen arabera, baimenduta dituen aurrekontu aldaketak erabaki ditzake.

8.– Programen arteko kreditu-eskualdaketak egiteko, aurrekontu osoaren % 20tik gorakoak baldin badira Eusko Jaurlaritzan dagokion organoaren baimena beharko da.

86. artikulua.– Aurkezpena.

1.– Ekitaldi bakoitza itxi eta hurrengo hiru hilabeteren barruan, Euskadiko Futbol Federakundearen administrazio-organoak urteko kontuak aurkeztu beharko ditu Biltzar Nagusian, eta kontu horietan agertu beharko dira: balantzea, galeren eta irabazien kontua, eta memoria ekonomikoa.

2.– Zuzendaritza Batzordeak egiten dituen urteko kontuak presidenteak eta, hala dagokionean, diruzainak izenpetu beharko dituzte.

87. artikulua.– Mozkinen aplikazioa.

Federakundearen diru-sarrera guztiak, kirol-jardueretan nahiz industria-, merkataritza- eta zerbitzu-izaerako edo izaera profesionaleko jardueretan Federakundeak lor ditzakeen irabaziak eta sariak, osorik bere helburu soziala garatzeko erabiliko dira.

Irabaziak ezin izango dira inola ere Federakundeko kideen artean banatu.

88. artikulua.– Zergapetzea eta besterentzea.

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak bere ondasun higiezinak zergapetu eta besterendu ditzake, dirua maileguan hartu, eta zorraren eta ondare-zati alikuotaren titulu ordezkatzaileak jaulki ditzake, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

a) Egintza horiek behin betiko ez konprometitzea entitatearen ondarea edo bere helburu soziala, eta hori profesional gaitu batek emandako irizpen bidez justifikatu ahal izango da.
b) Egintza horiek Biltzar Nagusiko kideen bi herenen gehiengoz baimendu egotea.

2.– Euskadiko Futbol Federakundearen ondasun higiezinak zergapetu edo besterentzeko, baldin eta horiek –guztiz edo zatian batean– administrazio publikoetako fondoekin finantzatu badira, halabeharrezkoa izango da dagokion kirol-administrazioak baimena ematea Biltzar Nagusiari aurkeztu baino lehen.

3.– Halaber, dirua maileguan hartu edo zor-tituluak jaulkitzeko –Euskadiko Futbol Federakundearen urteroko aurrekontuaren % 25etik gorako zenbatekoz–, beharrezkoa izango da, Biltzar Nagusian aurkeztu baino lehen, dagokion kirol-administrazioak baimena ematea.

89. artikulua.– Zor-tituluak.

1.– Zorraren edo ondare-zati alikuotaren ordezkapen tituluak –Euskadiko Futbol Federakundeak jaulkitzen dituenak– izendunak izango dira.

2.– 95.1.d) artikuluan adierazten den liburuan inskribatuko dira tituluak, eta ondorengo eskualdaketak ere hor jasoko dira.

3.– Balio izenduna, jaulkipen-eguna eta, hala behar izanez gero, interesak eta amortizazio-epeak agertu beharko dira titulu guztietan.

4.– Ez da inoiz baimenik emango titulu liberatuak jaulkitzeko.

5.– Dagokion kirol-administrazioak zorraren edo ondare-zati alikuotaren ordezkapen-tituluen jaulkipen-baldintzak gainbegiratuko ditu, Biltzar Nagusiak onartzeko aurkeztu baino lehen. Jaulkipen-baldintzak aztertu eta gero atzematen bada legedia urratu egin dela, dagokion administrazioak itzuli egingo dio jaulkipen-proposamena Euskadiko Futbol Federakundeari. Arau-urraketa zuzendu ostean, aurkeztu egin beharko da berriro ere onartzeko.

90. artikulua.– Ordainketak gauzatzea.

1.– Onartutako ordainketen gauzatze materiala diruzainari dagokio.

2.– Kirolari profesionalei eta afizionatuei dagozkien diru-sarrerak eta gastuak bereizita azalduko dira aurrekontuetan.

3.– Likidatutako aurrekontuen ekitaldiko amaierako soberakina, halakorik badago, diru-sarrera modura azalduko da hurrengo aurrekontuan.

91. artikulua.– Balantzea.

Zuzendaritza Batzordeak balantzea aurkeztuko du Ohiko Biltzar Nagusian, partidak zehaztuz, eta defizita, superabita edo oreka aditzera emanez. Urte ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

Euskadiko Futbol Federakundeak estatutu hauetako 95.1.c) artikuluan ezarri eta bidezkotzat jotzen diren kontabilitate-liburuen ardura izango du, bai eta liburu osagarriena eta arlo horretan indarrean dauden legeen arabera beharrezkoak direnena ere.

92. artikulua.– Auditoriak.

Euskadiko Futbol Federakundeak Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 144. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako auditoria-erregimenarekiko mendekotasuna izango du.

VII. TITULUA
AGIRI-ERREGIMENA

I. KAPITULUA
FEDERAZIOAREN LIBURUAK

93. artikulua.– Liburuak

1.– Euskadiko Futbol Federakundeak liburu hauek izan beharko ditu, gutxienez:

a) Federakundeko estamentuen liburua, bost ataletan banatua: kirol-klub eta -elkarteak, kirolariak, teknikariak, epaileak eta gainerako kolektiboak. Liburu horretan, eguneratutako atalen zerrenda eta Federakundean sartu diren eta handik atera direneko data agertuko dira.
b) Federakundearen akten liburua. Han, Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak hartzen dituzten erabakiak azalduko dira.
c) Kontabilitateko liburuak. Horietan, Federakundearen diru-sarrerak eta gastuak agertuko dira.
d) Hala badagokio, zor tituluen edo ondare-zati alikuotaren erregistro-liburua. Liburu horiek Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan bideratu beharko dira.

2.– Lehenagoko liburuen ardura hartuko da, beste xedapen batzuen ondoriozko obligazioak gorabehera.

3.– Kirol-arloan eskumena duen organoak legeztatuko ditu liburuak, Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroa arautzen duten arauekin bat etorriz.

II. KAPITULUA
FEDERAZIOAREN ARAUDIAK

94. artikulua.– Araudiak.

Euskadiko Futbol Federakundeak, gutxienez, honako hauek arautu beharko ditu:

a) Lehiaketen antolaketa eta garapena erregulatzen duten arauak.

b) Diziplina-erregimena.

c) Hauteskunde-erregimena.

d) Gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko erregimena.

e) Lizentzia-erregimena.

95. artikulua.– Onarpena.

1.– Federazioen araudiak Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzan aurkeztu behar dira –beronek onar ditzan–, Biltzar Nagusiak onartu eta hirurogei eguneko epearen barruan.

2.– Araudiok Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroak adierazitako euskarri informatikoan.

3.– Eskumena duen organoak araudien onarpen administratiboari ekingo dio, bi hileko epean, eskabidea erregistroan sartzen denetik aurrera.

4.– Federazioen araudiak eta horien gainean egiten diren aldaketak EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuko dira, administrazio mailan onartu eta gero.

5.– Federazioen araudiak indarrean jartzeko, aurretik onartu egin beharko dira eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu. Inskripzio egun horretatik aurrera izango dituzte ondorioak araudi horiek, bai federatuentzat bai hirugarrengoentzat eta entitateentzat. Administrazio-onarpena eman bitartean, federazioen arautegiak inongo eraginkortasunik gabeko proiektuak dira.

VIII. TITULUA
DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

96. artikulua.– Desegitea.

1.– Euskadiko Futbol Federakundea desegin egingo da Ezohiko Biltzar Nagusiak hartutako ebazpenez, estatutu hauetan ezarritako baldintza eta gehiengoak betez gero, edo ebazpen judizialez. Biltzar Nagusiaren aurretik ezingo dira azaldu hurrengo paragrafoan jasotako arrazoiak.

2.– Euskadiko Futbol Federakundea honako arrazoi hauengatik desegin beharko da:

a) Euskadiko Futbol Federakundearen aitormen ofiziala ezeztatu egin delako, non eta federakundea ez den erregimen orokorreko elkarte bihurtzen.
b) Administrazio-funtzio publikoak behar bezala betetzea guztiz ezinezkoa bada.
c) Federazioko organoak geldirik egoteagatik eta, horren ondorioz, haren funtzionamendua ezinezkoa izateagatik.
d) Eskuordetutako funtzio publikoak betetzen ez baditu.
e) Beste kirol-federazio batekin bat egiten badu.
f) Beste kirol-federazio batean sartzen bada.
g) Indarrean dagoen legedian aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.

97. artikulua.– Biltzarrerako deialdia.

1.– Presidenteak Biltzar Nagusia deituko du, desegiteko erabakia har dezan. Erabakia bi hilabeteko epean hartu beharko du, desegitea eragiten duen arrazoia ezagutzen den unetik aurrera.

2.– Pertsona federatuek eta eskumena duen kirol-administrazioak berak presidenteari Batzar Nagusia deitzeko eskatu ahal izango diote, haien ustez aurreko artikuluko bigarren paragrafoan aipatutako arrazoiren bat baldin badago.

3.– Batzar Nagusirako deirik egiten ez bada, akordiorik lortzen ez bada, edo akordioa desegitearen aurkakoa bada, edozein federatuk edo eskumena duen kirol Administrazioak berak Euskadiko Futbol Federakundearen desegite judiziala eskatu ahal izango du.

4.– Baldin eta Federakundearen erabakia desegitearen kontrakoa bada edo akordiorik lortzen ez bada, Euskadiko Futbol Federakundearen administrazio-organoa bera behartuta dago desegite judiziala eskatzera.

5.– Bi hilabeteko epean desegitea erabakitzeko Biltzar Nagusirako deirik egin ez duten administrazio organoko kideek erantzungo dute modu solidarioan. Eta modu berean erantzungo dute Biltzar Nagusia egiteko aurreikusitako egunetik –baldin eta ez bada osatu– edo Biltzar Nagusiaren egunetik –baldin eta erabakia desegitearen kontrakoa bada– kontatzen hasita bi hilabeteko epean desegite judiziala eskatzen ez badute.

98. artikulua.– Likidazioa.

1.– Euskadiko Futbol Federakundea desegin ostean, likidazio-aldiari ekingo zaio, non eta ez den bategitea edo desegindako Euskadiko Futbol Federakundearen aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorra.

2.– Euskadiko Futbol Federakundea desegin ondoren, bere nortasun juridikoari eutsiko dio likidazio-aldian dirauen bitartean. Fase horretan, bere izenaren ondoan, «likidazioan» jarri beharko du.

3.– Euskadiko Futbol Federakundea likidazio egoeran deklaratzen denetik aurrera, administrazio-organoak utzi egingo dio bere eginkizunak betetzeari, eta likidatzaileek eskuratuko dituzte eginkizunak. Hala eta guztiz ere, administrazio-organoko kideek likidazio-eragiketak burutzerakoan parte hartu beharko dute.

4.– Federakundearen ondarea likidatzeko, likidazio-batzordea izendatuko da, eta Biltzarrak izendatutako bost biltzarkidez osatuko da, Euskadiko Futbol Federakundeko presidentea buru dela. Idazkaria eta diruzaina ere izango dituzte laguntzaile.

5.– Likidatzaileak izendatzen nahiz kargutik kentzen direnean, Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatu beharko da.

99. artikulua.– Likidatzaileen eginkizunak.

1.– Euskadiko Futbol Federakundearen likidatzaileek honako eginkizun hauek izango dituzte:

a) Bere funtzioetan hastean, administrazio-organoarekin batera Euskadiko Futbol Federakundeak duen hasierako balantzea onestea.
b) Euskadiko Futbol Federakundeko liburuez eta gutunez arduratzea eta horiek zaintzea. Era berean, ondarearen osotasuna bermatzea.
c) Euskadiko Futbol Federakundea likidatzeko egiteke dauden eragiketak, nahiz egin beharreko berriak burutzea.
d) Federakundearen ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun higiezinak nahitaez enkante publikoan salduko dira. Kirol-administrazio eskumendunak baimendutako kasuetan baino ezingo da zuzeneko salmenta egin.
e) Transakzioak eta arbitrajeak adostea, Federakundearen interesentzat komenigarria bada.
f) Hartzekodunei ordaintzea.
g) Euskadiko Futbol Federakundearen ordezkaritza izatea.

2.– Likidatzaileek erantzungo dute Euskadiko Futbol Federakundearen, bere kideen eta hirugarrengoen edo entitateen aurrean; eta erantzun, hain zuzen ere, euren karguak betetzerakoan izandako dolu edo zabarkeria larriagatik.

3.– Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek amaierako balantzea egingo dute, eta Biltzar Nagusian aurkeztuko, onartu dezan. Ondoren, kirol-administrazio eskudunari bidaliko zaio.

100. artikulua.– Kontrol administratiboa.

1.– Kirol-administrazio eskumendunak likidazioaz arduratuko diren pertsonak izendatu ahal izango ditu, hain zuzen ere indarreko arauak betetzeaz arduratu daitezen.

2.– Euskadiko Futbol Federakundearen administrazio-organorik ez badago, edo bere funtzioak bertan behera utzi baditu, dagokion kirol-administrazioak likidatzaileak izendatu ahal izango ditu.

101. artikulua.– Eginkizunak.

Likidatzaileen funtzioa arrazoi hauengatik bukatuko da:

a) Likidazioa egitea.

b) Biltzar Nagusiak emandako botereak ezeztatzea.

c) Kirol-administrazio eskudunak botereak ezeztatzea edo gaitasunik gabe uztea.

d) Epaileak hala erabakitzen badu.

102. artikulua.– Kaudimengabezia.

1.– Euskadiko Futbol Federakundea kaudimen gabeturik gertatuz gero, likidatzaileek lehiaketa deklarazioa eskatu beharko dute lehenbailehen.

2.– Euskadiko Futbol Federakundea deseginez gero, likidaziotik ateratzen den ondare garbia kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak lehentasunez futbola sustatu eta praktikatzeko erabiliko du.

IX. TITULUA
ESTATUTUAK ONARTU ETA ALDATZEA

103. artikulua.– Prozedura.

1.– Euskadiko Futbol Federakundearen estatutuak onartu eta aldatzea prozedura honi egokituko zaio:

a) Federazioko zerbitzu juridikoek aurreproiektuaren zirriborroa prestatuko dute, oinarri gisara legez ezarrita daudenak hartuz.
b) Zirriborro hori amaitu eta gero, Zuzendaritza Batzordeari bidaliko zaio, txosten arrazoitua eman dezan.

c) Onarpena lortu ondoren, testua bakarka bidaliko zaie Biltzar Nagusiko kide guztiei. Gutxienez, hamabost eguneko epea emango da bidezkotzat jotzen dituzten zuzenketak edo iradokizunak arrazoiz aurkezteko.
d) Dei egingo zaio Biltzar Nagusiari, berari baitagokio onarpena egitea. Biltzarrak, proposatutako testua eta aurkeztutako zuzenketak aztertu ostean, ebatzi egingo du.
e) Onartu ondoren, kirol gaietan eskumena duen sailari aurkeztuko zaizkio, hirurogei egun naturaleko epean.

2.– Euskadiko Futbol Federakundeko presidenteak edo Zuzendaritza Batzordeko kideen bi herenek proposatuta baino ezingo dira aldatu estatutuak, non eta ez dagoen aldaketa horri ekiteko legezko aginduren bat.

3.– Bai estatutuak onartzeko –eta bai aldatzeko ere–, Ezohiko Biltzar Nagusian parte hartzen duten kideen bi herenek hartutako erabakia beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Estatutu hauetan ezarritako edukiak eta epeak, besterik xedatzen ez den bitartean, egun naturaletan hartuko dira kontuan.

Bigarrena.– Federakundearen arauetan pertsona fisikoei buruz ezarritako alderdi guztiak berdin aplikatuko zaizkie gizonezkoei nahiz emakumezkoei.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek onartu, eta Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatu dira.